

Euskal AEn 12.162 emakume ari dira I+Gn, hau da, arlo horretan lan egiten duten pertsona guztien % 38

Unibertsitatean % 56 emakumeak dira, baina horien % 75 osasunarekin eta gizarte-zerbitzuekin lotutako graduatan ari dira; % 29, berriz, mekanikan, elektronikan edo beste prestakuntza tekniko batean ari dira

Gaur, otsailak 11, **Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna** da, Zientziaren munduan emakumeak duen ordezkaritza ikusarazteko, eta, testuinguru horretan, Eustatek emakumeek Euskadin Zientzian duten parte-hartzea aztertua du I+G jardueretan eta bigarren eta unibertsitateko irakaskuntzan duten ordezkaritza bidez.

Eustaten datuen arabera, Euskal AEn **32.232 pertsona aritzen dira orotara I+Gn (2019), eta horietarik 12.162 emakumeak dira**. I+Gn lan egiten duten pertsona guztien artean, **Administrazio Publikoan** emakumeak % 60 dira; ondoren, **Irakaskuntzaren** sektorean ia ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean (% 49,9 dira emakumeak), eta, azkenik, **Enpresen** sektorean % 29,5 baino ez dira.

Diziplina zientifikoaren arabera, Ingeniaritza da I+Gn lan egiten duten pertsonen kopuru handiena duen jarduera (20.614 pertsona, guztizkoaren % 64), eta emakumeentzat ere jarduera nagusia da, zeren I+Gn lan egiten duten emakumeen % 48,5ek diziplina horretan lan egiten baitute, baina gizonen proportzioa (% 73,3) baino askoz txikiagoa da. Hala ere, I+Gn aritzen diren emakume guztien artean, % 22,8 **Medikuntza Zientzietan** aritzen dira (% 9,3 gizonen artean), eta % 15 **Gizarte Zientzietan** (I+Gn ari diren gizonen artean, % 7,8).

Emakumeak I+Gn duen ordezkaritza bilakaera

Emakumeek I+Gn duten ordezkaritza bilakaerari dagokionez, azken urteotan nabarmen egin du gora. Horrela, 1993an % 22,3 ziren, 2003an % 31,3 eta, pixkanaka, hazten joan da gaur egun % 37,7ra iritsi arte. **I+Gn dauden emakumeen kopurua 1993ko 1.928tik 2019ko 12.162ra igo da**. **Ingeniaritza** izan da joera-aldaketa hori gehien bultzatu duen diziplina zientifikoa, eta bikoiztu egin du emakumeen ehunekoa I+Gn, % 14,1etik % 28,6ra.


Emakumea Unibertsitatean, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan (2018-2019 ikasturtea)

Unibertsitateari begiratzen badiogu, % 56 emakume ikasleak dira. Hala ere, gradu zientifiko bat ikasten duten emakumeen artean, gehienek alde handiz (% 75,49k) **Osasun eta gizarte-zerbitzuetako** graduatan ikasten dute, % 28,94k **Mekanika, Elektronika eta bestelako prestakuntza teknikoa**; **Industria eta Eraikuntza** delakoarekin lotutako graduatan eta % 16,76k **Informazioaren eta Komunikazioen Teknologietan**. **Natur Zientzietako, Kimikako, Fisikako eta Matematikako** graduatan emakumeak ikasleen % 49,70 dira.

Batxilergoan proportzio bera dago mutilen eta nesken artean, baina emakume gehiago dago **aukera guztietan, Zientzietan izan ezik** (% 48). Nabarmentzekoa da **Arte eta Giza Zientzietan** neskek duten matrikula-kopuru handia (% 70) eta, ondoren, **Gizarte Zientzietan** (% 60).

Azkenik, **Lanbide Heziketan** neskak % 33 dira, eta, bereziki, adar hauek aukeratzen dituzte: **Irudi pertsonala** (non neskak % 90 diren), **Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza** eta **Zerbitzu soziokulturalak eta komunitatearentzakoak** (% 80 dira kasu bietan), **Osasuna** (% 75 dira), **Administrazioa eta kudeaketa** (% 60 dira) eta **Elikagaien industriak** eta **Kimika** (% 60 dira bietan). Eskainitako gainerako familietan gizonezkoak dira nagusi, **Merkataritza eta Marketinean** izan ezik, non parekotasuna baitago.

EMAKUME ETA NESKA ZIENTZIALARIEN NAZIOARTEKO EGUNA 2021/02/11



Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62